



**3/2021 TXOSTENA, URTARRILAREN 29KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN A HOLKU BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: DEKRETU PROIEKTUA, OSASUN SAILAREN EGITURA
ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen) –abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuaren bidez aldatu zen– honako hau ezartzen du 12. artikuluan:

«1.- Honako eginkizun eta jarduera esparru hauek dagozkio Osasun Sailari:

- a) Plangintza eta antolamendu sanitarioa.
- b) Osasun publikoa eta elikadura eta ingurumen osasuna zaintzea.
- c) Zainketa epidemiologikoa.
- d) Farmazia antolamendua.
- e) Adikzioak.
- f) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- g) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak.

2.- Osasun Sailari atxikitzen zaizkio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa eta Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (BIOEF) sektore publikoko fundazioa».



Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak haxe dio azken xedapenetako lehenengoan: *«Sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2020ko abenduaren 31 baino lehen, euren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiote lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek Gobernu Programan sailei izendatutako jardun eremu bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.*

Erregelamendu horiek honako antolamendu irizpide hauei jarraituko diete: austeritatea, egiturak lautzea, eduki zabaleko arlo funtzionalak elkartzea, egiturazkoak ez diren staff arlo funtzionalak identifikatzea eta informazioaren teknologiak ahalik eta gehien aprobetxatzea».

Beraz, dagokion dekretu proiektua egitea sustatu da, Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 12. artikuluko horretan esleitutako esparruei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2021eko urtarrilaren 11n, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_106890/20_09), honako agiri hauek agertzen dira:

- Agindua, 2020ko irailaren 28koa, Osasuneko sailburuarena, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua egiteko prozedura hastea erabakitzen duena.
- Agindua, 2021eko urtarrilaren 5koa, Osasuneko sailburuarena, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu proiektua onartzen duena.
- Dekretu proiektuaren testua.
- Dekretu proiektuari buruzko memoria, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariak sinatua.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz; Izan ere, xedapen orokorra da, eta, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten die, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzardeari dagozkion aholkularitza eginkizunak Batzarde Iraunkorrak beteko ditu, baldin eta eginkizun horiek egitura organikoak eta funtzionalak arautzea badute xede.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzarde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparruak transkribatuko dira:

«2. artikulua. – Osasun Sailaren egitura orokorra.

1. – Osasun Sailak, aurreko artikuluan adierazitako eskumenak gauzatzeko, honako organo hauek izango ditu:

A) Organo nagusiak:

a) Osasuneko sailburua.

a.1. – Osasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza.



b) Osasun Sailburuordetza.

b.1. – Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

b.2. – Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

b.3. – Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza.

b.4. – Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza.

c) Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza.

c.1. – Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

c.2. – Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

c.3. – Farmazia Zuzendaritza.

B) Organo periferikoak:

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde ordezkariak».

«4. artikulua. – Osasuneko sailburua.

[...]

3.– Halaber, sailburuari dagozkio honako egiteko hauek ere:

a) Sailari 500.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena ematea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak».

«5. artikulua. – Osasun Saileko sailburuordetzak.

[...]

2.– Oro har, sailburuordeek honako egiteko hauek izango dituzte:

[...]



i) Sailburuordetzako zuzendariek emandako ebazpenen aurka jarritako errekurtsok ebaztea, baita, hala dagokionean, organo periferikoek emandakoen aurka jarritakoak ere, baldin eta hierarkikoki euren gainetik badago».

«13. artikulua. – Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza.

1.- 5. artikuluan ezarritako egitekoez gain, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzari dagokio honako jardun arlo hauen zuzendaritza eta koordinazioa:

[...]

d) Ondore ekonomikoak dituen xedapenak eta ekintzak ikuskatzea, sailaren gastua baimenduz 500.000 eurorainoko zenbatekoa duten espedienteetan.

[...]

g) Zerbitzu zorroko prestazio sanitarioak kontratatzea helburu duten larrialdi espedienteak onartzea.

h) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarekin programa kontratua hitzartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen diren programa kontratuak hitzartzea ere.

[...]

2.- Halaber, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordeari dagokio osasun prestazioen alorrean berriazko kontratazio organo gisa aritzea, prestazioak osasun eremu bati baino gehiagori zuzentzen zaizkienean. Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzari dagokio kontratazio horiek izapidetzea».

«14. artikulua. – Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.- Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak egiteko hauek izango ditu, 6. artikuluan ezarritakoez gain:



[...]

r) Osasun Sailari sistema informatikoen arloan dagokion kudeaketa administratiboa zuzendu eta koordinatzea, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearekiko (EJIE) harreman tresnen harpidetza eta segimendua barnean hartuta.

[...]

2.- Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagozkio sailaren ohiko kontratazio organo izateak berekin dakartzan egiteko guztiak, hargatik eragotzi gabe dekretu honek saileko beste organo batzuei arlo honetan eta berariazko kontratazio organo gisa esleitzen dizkien eskumenak.

Halaber, eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat hartzen diren entitateekin prestazioren bat hitzartzeko negozio juridikoak egiteko. Sektore publikoko kontratazioaren arauetan jarriko du zein diren baliabide propio eta zerbitzu tekniko horiek».

«15. artikulua. – Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

1.- Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak egiteko hauek izango ditu, 6. artikuluan ezarritakoez gain:

[...]

c) Gidalerro eta irizpide nagusiak lantzea zerbitzu sanitarioen kontratazioa egiteko, definizio estrategikoaren arabera. Horretarako, irizpide bereziak proposatuko ditu, helburu eta baliabide ekonomikoak esleitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei –programa kontratuen bitartez– eta beste agente sanitario batzuei –kontratazio ereduen bitartez–, eta kontratazio plan orokorrak ere ezarriko ditu, hala eskatzen duten prestazioei dagokienez.

d) Kontratazio sanitarioari ezar dakioken oinarrizko prezio politika proposatzea.

e) Zerbitzu sanitarioen kontratazio publikoa gauzatu eta ebaluatzea, Osasun Sailaren eskumen eremuan eta saileko gainerako organoekiko koordinazio estuan».



«17. artikulua. – Osasun Sailaren lurralde ordezkariak.

[...]

2.– Lurralde ordezkariak bakoitzak buru edo ordezkari bat izango du, zeina Osasun Sailak lurralde historikoan izango duen ordezkari gorena izango baita.

Osasun Sailburuordetzaren mende egongo da hierarkikoki, eta, funtzionalki, berriz, Osasun Saileko zuzendarien mende egongo da, betiere gaiaren arabera.

Lurralde ordezkariak kontratazio organo espezifiko gisa jardungo du, eta, zerbitzu zorroko zerbitzu sanitarioen prestazioa kontratatzeari dagokionez, kontratazio organo gisa dagozkion egitekoak gauzatuko ditu zerbitzu horiek berari dagokion osasun-eremura zuzendutakoak badira, sailak ezartzen dituen gidalerro eta irizpideekin bat etorriz.

Halaber, lurralde ordezkariari dagokio bere lurralde eremuan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzu sanitarioko erakundeekin programa kontratuak izenpetzea.

[...]

5.– Antolamendu eta Kontratazio Sanitarioaren Arloak honako egiteko hauek izango ditu:

[...]

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoko zerbitzu sanitarioetako erakundeekin egiten diren programa kontratuak izapidetu, horien gaineko intzidentziak ebatzi, segimendua egin eta ebaluatzea, sailean ezartzen diren gidalerro eta irizpideei jarraikiz.

[...]

d) Lurralde ordezkariak ebatzi beharreko osasun zerbitzuak kontratatzeko espedienteak izapidetu, jarraitu eta ebaluatzea, eta maila goragoko espedienteen segimendua eta ebaluazioa egitea, kontratazio organoak ezarritako moduan».



116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: «*Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio organoak [...] salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]».*

Ahalmen hori erabiliz, dekretu proiektuak honako xedapen hauek ditu, eta horietatik sortu da kontratazio organoen egitura hau:

- 14.2 artikulua arabera, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagozkio sailaren kontratazio organo izateak berekin dakartzan egiteko guztiak.
- Kontratazio organo arrunt horretaz gain, dekretuak ezartzen duenaren arabera, beste kontratazio organo espezifiko batzuen ardura izango dira prestazio sanitarioak xede diren kontratuak, izan ere, ez daude 14.2 artikuluan xedatzen den eskumenak barnean hartzen dituenen artean.

Eta berariazko arlo horren barruan, bi kontratazio organo izendatzen dira, kontratazioek hartzen duten lurralde eremuaren arabera, honela banatuta:

- Osasun Sailaren lurralde ordezkari bakoitzeko titularrak, kontratatu beharreko zerbitzu sanitarioak bere eskumeneko osasun eremuari zuzendutakoak badira (17.2 artikulua).
- Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, kontratatu beharreko prestazio sanitarioak osasun eremu bati baino gehiagori zuzendutakoak badira (13.2 artikulua).

Lurralde eremuaren arabera banaketa horrek salbuespen bat du: zerbitzu zorroko osasun prestazioak larrialdiko izapideen bidez kontratatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (aurrerantzean, SPKL); modu horretan kontratatzen bada, dekretu proiektuaren 13.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera, eskumena Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordeari dagokio.



13.1 artikuluan ezartzen denari dagokionez, 500.000 eurora arteko Sailaren gastuak baimentzea eta larrialdiko izapideetan kontratazio organoari dagozkion ahalmenak gauzatzea egiturazko antolamendu unitate bati dagokio (Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzari); baina eskumen horiek pertsonalak eta indibidualak direnez, jardun hori organo pertsonalizatu bati dagokio beti (sailburuordeari, kasu honetan); ondorioz, d) eta g) letren edukia artikuluko bereko 2 eta 3 apartatuetara eramatea gomendatzen dugu, eta honela idatzita geratuko lirateke:

«2.- Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordeari dagokio Sailaren gastuak baimentzea 500.000 eurora arteko espedienteetan».

«3.- Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea izango da sailaren kontratazio organo ahalduna larrialdi izapideetan zerbitzu zorroko prestazio sanitarioak kontratatzeko».

Hala, dekretu proiektuaren 13. artikuluko 2. zenbakia, artikuluko horren 4. zenbakia bihurtuko litzateke.

Gaztelaniazko testuan, 17.2 artikuluari dagokionez, gure ustez, *«[...] en relación con la contratación de la prestación de servicios sanitarios de la cartera de servicios, cuando las mismas se dirijan a su respectiva Área de Salud,[...]»* dioen lekuan, honako hau esan behar du: *«[...] en relación con la contratación de la prestación de servicios sanitarios de la cartera de servicios, cuando los mismos se dirijan a su respectiva Área de Salud, [...]»*.

Kontratazio organoaren edo organoen egituraketa Sailari berari dagokion antolaketa gaia da, eta, beraz, aipatutako xedapenak bat datoz uztailaren 27ko Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko 116/2016 Dekretuaren xedapenekin.



Lehen aipatutako 14.2 artikuluan, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariari kontratazio organoari dagozkion ahalmenak emateaz gain, baliabide propioei enkarguak egiteko eskumena jasotzen da.

Artikulu horretan jasotako testuari dagokionez, «*bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa*» esamoldearen ordeztu «*bitarteko propio pertsonifikatua*» jarri behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 32. artikuluan agertzen den terminora egokitzeko.

Dekretu proiektuaren 4.3 artikulua ezartzen du sailburuak eskumena duela Sailari 500.000 eurotik gorako gastuak egiteko baimena emateko, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.

Kontratazio publikoaren esparruan, Gobernu Kontseiluaren eskumen horiek 116/2016 Dekretuaren 3.1 artikuluan aipatutakoak dira, eta, horren arabera, «*Gobernu Kontseiluari honako ahalmen hauek dagozkio:*

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak eta oinarritzko akordioak egiteko baimena ematea [...]».

Aurrekontu legeetan adierazi izan da Gobernu Kontseiluaren baimen horrek gastua baimentzea ekarriko duela, pleguetan aurreikusitako balizko aldaketa eta luzapenei dagokiena barne.

Bestalde, hau ezartzen da SPKLren 117.1 artikuluan: «*Kontratazio espedientea osatu eta gero, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du kontratazio organoak, espedientea onartzeko, eta esleipen prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastuaren onespina ekarriko du, salbu eta aurrekontua ezin izan bada aldeztu aurretik ezarri, edo deskontzentrazio arauak edo eskuordetze egintzak kontrakoa ezartzen dutenean izan ezik; azken kasu horretan, onespina eskatu beharko zaio organo eskudunari. Ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratuko da».*



Dekretu proiektuan ezarritako kontratazio organoen egituraren bidez, organo horietako bakoitzak, finkatutako mugen barruan, erabat baliatzen ditu ordenamendu juridikoak kontratazio organoei ematen dizkien eskumenak; besteak beste, espedientea onartzea (gastua onestea ere ekarriko du) eta adjudikazio prozedura hastea.

Ondorioz, kontratazio organo izaeraren babespean egin beharreko kontratuek dakarten gastua onestea, legez, aipatutako artikuluetan kontratazio organo izendatuei dagokie. Onespen hori kasuan kasuko esparruaren barruan egingo dute, eta Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen baimena lortu beharko dute, gastua 500.000 eurora artekoa bada; gastua 500.000 eurotik gorakoa bada, berriz, Osasuneko sailburuaren baimena beharko dute. Eta gastua Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako muga kuantitatiboa baino handiagoa bada, Gobernu kontseiluak baimendu beharko du gastua.

SPKLren 44.6 artikulua arabera, 1. apartatuan xedatzen diren betebeharrak (kontratazio errekurtsio berezia jarri ahal zaien egintza eta erabakiak) biltzen ez dituzten Administrazio Publikoen kontratuak adjudikatzeko prozeduretan emandako egintzen aurka errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikulua arabera «*Ebazpenen eta izapide egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsioa eta aukerako berraztertze errekurtsioa aurkezteko, oinarritzat harturik deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruz lege honen 47. eta 48. artikuluetan azaldutako arrazoietakoren bat.*

Gainerako izapide egintzen aurka egonez gero, interesdunek alegatu egin behar dute, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean hori kontuan hartzeko».



Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121 artikulua araberaz: «112.1 artikuluan adierazitako ebazpen eta egintzen aurka, administrazio bidea amaitzen ez dutenean, eman zituenaren goragoko organoari jar dakioko gorako errekurtsua [...]».

Dekretu proiektuaren 5.2.i) artikulua araberaz, sailburuordeek, besteak beste, Sailburuordetzako zuzendariak emandako ebazpenen eta administrazio egintzen aurka jarritako errekurtsuak ebatziko dituzte, bai eta, hala badagokie, hierarkian gorago dauden organo periferikoak emandakoak ere.

Arestian adierazi den bezala, dekretu proiektuak 17.2 artikulua hirugarren paragrafoan ezartzen du Osasun Sailaren lurralde ordezkari bakoitzeko titularra izango dela kontratazio organo espezifikoa, kontratatu beharreko zerbitzu sanitarioak bere eskumeneko osasun eremura zuzentzen direnean.

Dekretu proiektuaren 17.2 artikulua bigarren paragrafoan adierazten denez, Osasun Saileko lurralde- ordezkaria Osasun Sailburuordetzaren mende egongo da hierarkikoki.

Azaldutakoagatik, ikusten da Osasun sailburuordea dela gora jotzeko errekurtsuak ebazteko organo eskuduna, lurralde ordezkariak emandako ebazpen eta egintzen aurkakoak badira. Horrek esan nahi du, horixe dela kontratazio publikoaren arloan duen eskumen bakarra.

Kontuan hartuta dekretu proiektuak xedapen iragankor bakarra duela, xedapenaren izenburutik «LEHENENGOA» ezabatu beharko litzateke.

Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.